

EUSKARA

1. BATXILERGOKO IKASLE LIBREAK

ALUMNADO LIBRE DE 1º DE BACHILLERATO

TESTU-LIBURUAK:

Ikasgai bakoitzean baliabideak daude (testuen irakurmena, entzumena, hiztegia, gramatika edukiak) helburu komunikatiboa burutu ahal izateko.

Arian B1.1 Ikaslearen liburua (ISBN: 978-84-9027-326-5) + Lan-koadernoak (ISBN: 978-84-9027-257-2)

1. Ongi etorri.

Lortu beharreko helburu komunikatiboa:

- Zure aurkezpen idatzia webgune batean adiskideak egiteko.

2. Zaharrak berri.

Lortu beharreko helburu komunikatiboa:

- Lagun bati e-mail bat bidaliko diozu, izandako gertaera kontatzeko.

3. Aurrerapenak.

Lortu beharreko helburu komunikatiboa:

- Teknologia berriarekin zerikusia duen tresna edo gailuren bat deskribatu.

4. Giza harremanak

Lortu beharreko helburu komunikatiboa: Aukeratu hauetako gai bat.

- Idatzi nolakoa den zure umore-sena.
- Idatzi nolakoa den zure familia.
- Idatzi zuk pairatu dituzun aldaketak bizitzan zehar.
- Idatzi mezu elektronikoa lagunari arazoaren inguruan aholkuak emateko

5. Etorriko zara, ezta?

Lortu beharreko helburu komunikatiboa: Aukeratu hauetako gai bat.

- Begiratu agenda kulturala edo kirol-agenda eta antolatu astebururako aisialdiko planak eta adierazi zure nahiak, hau da, zer gustuko zenuke, nora joango zinateke, noiz, nola ...
- Aukeratu zuri gehien gustatzen zaizun ekitaldi bereziren bat eta deskribatu.
- Egin lagunei ekintza edo festa horretako gonbidapena edo proposamena zurekin joateko.

- Imajina ezazu zuri egin dizutela proposamena eta erantzun egin behar duzula
- Irakurri duzun libururen bat, ikusi duzun filmaren bat edo entzun duzun diskoren bat. Idatzi zure iritzia eta gomendioa,

Arian B1.2 Ikaslearen liburua (ISBN: 978-84-9027-326-5)+ Lan-koadernoak (ISBN: 978-84-9027-257-2)

6. Gurean

Lortu beharreko helburu komunikatiboa: Aukeratu hauetako gai bat.

- Aukeratu inauterietako edo festa bateko pertsonaia bat eta deskribatu, festa edo jarduera horretan zer egiten den kontatuz.
- Aukeratu zuk ezagutzen duzun kondaira eta kontatu, ariketak (35. orrialdean, 3. ariketa) agertzen diren puntuak sartuz.
- Pentsatu zure inguruan edo beste herrialde batean egiten den produktu bereziren bat edo plater tipikoren bat eta idatzi nola egiten den
- Pentsa zure herriko edo beste herri batekoak nolakoak diren (alaiak, itxiak, festazaleak, astakirtenak, lehiakorak, solidarioak, kirolzaleak, ...) eta idatzi ezaugarri horiek islatzen dituen tradizio edo ohituraren bat (ezkontza luzeak, kirol arriskutsuak, apustuak, jaiak, egun berezietako ohiturak ...)

8. Neurrian.

Lortu beharreko helburu komunikatiboa: Aukeratu hauetako gai bat.

- Idatzi zer egiten duzun zure itxura fisikoa zaintzeko.
- Deskribatu jokabide-nahasmenduren bat sufritzen duen norbaiten jokabidea.
- Pentsa ezazu lagun batek aholkua eskatu dizula 20 urteko semea lodiegi dagoelako eta etxetik atera nahi ez duelako. Eman gomendioak.
- Idatzi zer osasun-ohitura daukazu zeure burua zaintzeko eta zergatik hartu dituzun ohitura horiek.

9. Gizartea eta ongizatea.

Lortu beharreko helburu komunikatiboa: Aukeratu hauetako gai bat.

- Osasuna, maitasuna eta dirua; zure ustez, zein da garrantzitsuenak? Zein hurrenkeratan emango zenituzke? Zergatik? Eman zure iritzia eta zergatik.
- Zein da zure inguruan kezka handien sortzen duen gizarte-arazoa? <nola bizi duzue? Zein pertsonari eragiten dio?
- Zer txartel mota erabiltzen duzu? (garraio publikorako, erosketetarako egitekoak, bankukoak ...) Nola eskura daiteke halako txartela? Eman jarraibideak.
- Erreklamazio-gutuna.

10. Ametsak amets

Lortu beharreko helburu komunikatiboa: Aukeratu hauetako gai bat.

- Kontatu amets bat.
- Idatzi etorkizunean zer egin nahiko zenukeen.
- Idatzi etorkizunean, agian, egingo dituzun 4 gauza.
- Idatzi nolakoa irudikatzen zenuen bizitza txikitan.
- Gogoratu bizitzan hartu dituzun erabakiak, ezagutu dituzun pertsonak, gertatu diren ezbeharrak eta irudikatu ezazu horiek gertatu ez balira edo beste batzuk gertatu balira, nolakoa izango zen zure bizitza.

EBALUAZIO IRIZPIDEA

- Azterketan Arian liburuxkan lantzen diren helburu komunikatiboak, eta horiek lortzeko edukiak, testuak, ariketa motak, hiztegia eta abarrekoak aztergai izango dira.
- Proban idazmena, entzumena, gramatika eta lexikoa kalifikatuko da.

Idazmena: %40 (Lantzen diren ikasgaietako idazlanen artean bat sartuko da azterketan, 180 hitzekoa)

Irakurmena: %20 (Arian liburuan agerturikoa(k))

Entzumena: %10 (Arian liburuan agerturikoa(k))

Gramatika, ortografia eta lexikoa: %30 (Arian Lan koadernoan liburuan azaldutako edukiak)